Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN DE BILBAO

**Gradu Amaierako Lana**

**HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2020/2021 ikasturtea**

# HAUR LITERATURAREN ILUSTRAZIOAK ETA GENERO EREDUAK: IRUDI(AR)EN GARRANTZIA

**Egilea: Malen Martinez Azkunaga**

**Zuzendariak: Maite Serna Martínez**

**Karla Fernández de Gamboa Vázquez**

**Leioan, 2021eko ekainaren 7a**

# AURKIBIDEA

**SARRERA** **3**

**1. MARKO TEORIKOA** **3**

1.1 Hezkidetza: Definizioa eta inplikazioa. **4**

1.2 Haur literatura: Definizioa eta inplikazioa **4**

1.2.1 Ideologia Haur Literaturan **5**

1.2.2 Hezkidetza Haur Literaturan **6**

1.2.3 Sexismoa: Definizioa eta inplikazioa **7**

1.3. Ilustrazioak Haur Literaturan: Album ilustratuak **8**

1.4. Gela-liburutegiak **9**

**2. HELBURUAK** **11**

**3. METODOLOGIA** **11**

3.1. Ikerketa aurrera eramateko lagina **11**

3.2. Ikerketaren diseinua, plangintza eta prozedura **12**

3.2.1 Ikasleek aukeratutako eta irakasleek aurkeztutako ipuin eta albumak **13**

3.2.3 Albumak aztertuz **14**

**4. EMAITZAK** **15**

4.1. Gela-liburutegietan zein album eta ipuin dauden 15

4.2. Haur Hezkuntzako irakasleek galdetegian emandako erantzunak 16

4.3. Haurrek eta irakasleek hautaturiko albumak 17

4.3.1. Protagonistaren generoa eta izena 17

4.3.2 Zelakoa den pertsonaia maskulinoaren eta femeninoaren deskribapena 17

4.3.3. Pertsonaia nagusi zein bigarren mailako pertsonaiekin erabilitako koloreak 18

4.3.4. Familien aurkezpena 19

4.3.5. Maitasunaren trataera 20

4.3.6. Pertsonaia maskulino eta femeninoak zer espaziotan agertzen diren eta zer egiten duten 20

4.3.7. Istorioaren mezua 22

**5. ONDORIOAK** **23**

**6. BIBLIOGRAFIA** **24**

**ERANSKINAK** **26**

1. Eranskina: Irakasleei zuzendutako galdetegia 26

1.1. A ikastetxeko erantzunak 26

1.2. B ikastetxeko erantzunak 28

2. Eranskina: Album ilustratuen eta ipuinen emaitzen taulak 30

## ABSTRACT

GrAL honen bitartez aztertu da gela-liburutegietan dauden Haur Literaturaren materialek Hezkidetza baloreak helarazten dituzten, edo kontrara, emakume eta gizonen estereotipoak eta sexismoa islatzen dituzten. Azterketarako, batetik, bi ikastetxetako Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakasleentzat galdetegi bat sortu genuen, jakin nahian Hezkidetza baloreetan hezteari garrantzia ematen ote dioten, eta euren iritziz, Haur Literatura gai hau bideratzeko erreminta baliagarria den. Bestetik, umeentzat eta irakasleentzat estimatuenak diren albumak eta ipuinak aztertu dira. Lan honetan ondorioztatu dugu umeei eskainitako materialetan genero estereotipoak alboratzeko asmo argia duten irakasleak egon badaudela, baina umeen eskuetara estereotipoak eta genero rolak erreproduzitzen dituzten materialak eskaintzen dituzten irakasleak ere bai. Hori dela eta, hezkuntza-eragileei eta familiei haurrentzako liburuen testuek zein irudiek transmititzen dutenari adi egotea eskatzen zaie.


**Hitz gakoak:** *Hezkidetza, Haur Literatura, ilustrazioak, genero estereotipoak eta erreferente berriak.*



A través de este TFG se ha analizado si los materiales de Literatura Infantil en las bibliotecas de aula transmiten valores coeducativos o si, por el contrario, reflejan estereotipos de mujeres y hombres y sexismo. Para el análisis, por un lado, creamos un cuestionario para el profesorado de segundo ciclo de Educación Infantil de dos centros, para saber si dan importancia a la educación en valores coeducativos y si consideran que la Literatura Infantil es una herramienta útil para orientar este tema. Por otro lado, se han analizado los álbumes y cuentos más apreciados para niños/as y profesores/as. En este trabajo hemos llegado a la conclusión de que en los materiales dedicados a los niños/as hay profesores/as con clara intención de obviar los estereotipos de género, pero también hay profesores/as que ofrecen a los niños/as materiales que reproducen estereotipos y roles de género. Por ello, se pide a los agentes educativos y a las familias que estén atentos a lo que transmiten los textos e imágenes de los libros.


**Palabras clave:** *Coeducación, Literatura Infantil, ilustraciones, estereotipos de género y nuevos referentes.*



Through this study we have analysed whether Children's Literature materials in classroom libraries transmit coeducational values or whether, on the contrary, they reflect stereotypes of women and men and sexism. For the analysis, on the one hand, we created a questionnaire for the teachers of the second cycle of Early Childhood Education in two centres, to find out if they give importance to education in coeducational values and if they consider that Children's Literature is a useful tool to guide this topic. On the other hand, the most appreciated albums and stories for children and teachers have been analysed. In this work we have come to the conclusion that in the materials dedicated to children there are teachers with a clear intention of avoiding gender stereotypes, but there are also teachers who offer children materials that reproduce gender stereotypes and roles. For this reason, educational agents and families are asked to be attentive to what the texts and images in the books convey.


**Key words:** *Coeducation, Children's Literature, illustrations, gender stereotypes and new references.*

## SARRERA

Haur Literaturaren materiala Haur Hezkuntzako geletan egunerokotasunean oso erreminta baliagarria izan da beti, umeek istorioak entzutea eta istorioetan sartzea maite baitute. Geletan hainbestetan erabiltzen den materiala izanik, garrantzitsua iruditzen zitzaidan aukeraketa egokia egiteko, baloretan egokiak diren materialak aukeratzen jakitea. Horren inguruko kezka, praktikaldietan egondako gela-liburutegien errealitatea ikusterakoan eman zen, ez nuen ulertzen zelan umeek egunero erabiltzen zuten materialetan hain ikuspegi androzentrista eta eurozentrista eskuragarri izatea. Gainera, Bilboko Hezkuntza Fakultatean baloreetan heztearen garrantzia ikasi arren, hau aurrera eramateko erremintak faltatzen zitzaizkidalakoan nengoen. Beraz, GrAL honen gaia interesgarria suertatzeaz gain, ezinbestekoa iruditzen zitzaidan etorkizunean irakasle izanik gizartean dauden estereotipoetan ez jausteko eta umeek horiek ez erreproduzitzera bideratzeko.

Gai honi erreparatzea ez da orain sortu den kezka, izan ere, Ochoa et al. (2006), Aizpurua eta Lasarte (2015) eta Paternain (2016) adituek, beste batzuen artean, eskoletako ipuin eta album ilustratuak ikertzea erabaki zuten. Izan ere, eskoletan estereotipoak erreproduzitzen dituzten eta genero balore negatiboak helarazten dituzten materialak oraindik orain badaudela ikusi zuten, eta ondorioz, horien aldaketa egitera deitu zuten.

Lacunzak (2013) aipatu bezala, jaiotzen garenetik gizaki sozialak gara eta gure bizitza osoan zehar gure kulturak dauzkan eragile askoren menpe heziko gara, besteak beste, hezkuntza, kultura, irudia, aisia, ohiturak, etab. Horiei faktore oso garrantzitsu bat gehitu behar zaie: genero markak, rolak, estereotipoak. Genero ikuspegiak eragin zuzena dauka gure bizitza baldintzatuko duten aipatutako eragileetan, eta horren adibide daukagu gizarteak hartutako jokaera jaioberri bat garenetik.

Genero baten bidez banatzen gaituzte eta gure bizitzako alor guztietan atxikitutako genero rol horien menpe bizitzea da gizarteak inposatutako betebeharra, guk askotan axolagabeki betetzen duguna. Izan ere, banaketa horretaz hain inguratuta gaudenez, naturala edo guretzat normalena horiek erreproduzitzea da. Horregatik, oso garrantzitsua da erreferente berriez inguratzea eta ahalegintzea erreferente berriak zabaltzen, horiek txikitatik eredu bilakatzeko eta gutxinaka genero bereizkeria ezagutu gabeko umeak heztea utopia baino egungo errealitatea bihurtzeko.

## 1. MARKO TEORIKOA

GrAL hau lau ardatzetan oinarritzen da: lehena, Hezkidetzan; bigarrena, Haur Literaturan; hirugarrena, liburu ilustratu edoeta albumetan; eta laugarrena eta azkena, gela-liburutegietan. Horrenbestez, marko teorikoa lau ildo horien arabera garatu da, kontzeptuen definizioak zehaztuz eta horien inguruko berrikuspen bibliografikoa eginez.

## 1.1 Hezkidetza: Definizioa eta inplikazioa.

Hasteko, beharrezkoa da lan honen ardatza den Hezkidetza kontzeptuaren esanahia ondo zehaztea, historian zehar, kontzeptu hau ez baita berdin ulertu. Hala ere, gaur egun guztiek bat egiten dute Hezkidetza kontzeptuaren gakoa eta helburua genero-desberdintasunak desagertzea eta emakume eta gizonen aukera eta eskubide-berdintasuna bermatzea dela (Reizabal et al., 2015, apud Paternain, 2016).

Horrez gain, Eizagirrek (2013) Hezkidetza pertsona guztien garapena sustatzen duen eta generotik at egiten den Hezkuntzatzat jotzen du, hau da, "gizon eta emakumeei aldez aurretik zehaztutako rol, balio, portaera… kontuan hartu gabe heztea. Honekin, estereotipo maskulino eta femenino, zahar eta tradizionalak alde batera utziz, bide berria eraikitzea du helburu" (Eizagirre, 2013, 12 or.).

Reizabalen et al. (2015) arabera, Hezkidetza gaur egungo Hezkuntza Sistemaren erronka handienetako bat da (apud Paternain, 2016).

Beraz, Hezkidetza integrazioan oinarrituriko Hezkuntza mota bat dela esan dezakegu, gizarteak genero bereizketagatik dauzkan hamaika hutsuneak salatuz, berdintasunean oinarritutako Hezkuntza baten alde egiten baitu. Izan ere, teorian emakume eta gizonen arteko berdintasuna dagoelako ustea oso zabalduta dagoen arren, gaur egun hainbat arlotan generoen arteko berdintasuna ematen ez dela argi dago, eta beraz, berdintasunean bizitzeko esku hartu beharrak bere horretan jarraitzen du. Hori dela eta, Hezkuntza Sisteman Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planean (Eusko Jaurlaritza, 2013) hurrengoa aipatzen da:

> Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko, ezinbestekoa da egungo eskola mistoa Hezkidetzan oinarritutako eskola bihurtzea. Eskola horren erreferentzia pertsonak izango dira eta haien identitateen garapena zuzenagoa izango da denontzat, genero, Hezkuntza eta gizarte desberdintasunik gabeko eskola bat (10 or.).

Aurrekoa laburbiltzeko, Alvarez et al. (2019) esandakoa batuko dugu:

> Hoy en día, se entiende el concepto de coeducación como una educación no machista, no androcéntrica y no sexista, que supera estereotipos y roles de género, y trata de acabar con las desigualdades y discriminaciones inherentes al sistema patriarcal o a la ideología de género (64 or.).

Dagoeneko, beraz, badakigu Hezkidetzaren bitartez genero rolak eta estereotipoak gainditu nahi direla, Hezkuntza ez matxista, ez androzentrikoa, ez sexista lortzeko helburuarekin. Baina, nola alda daitezke hainbeste urtetan gure kulturan hain erroturik egon diren estereotipo diskriminatzaile horiek?

## 1.2 Haur literatura: Definizioa eta inplikazioa

Lan honen bigarren ardatza garatzen hasteko, Haur eta Gazte Literaturan aditua den Etxaniz irakaslearen definizio batekin hasiko gara: "haur eta gazte literatura, haurrentzat edo gazteentzat idatzia izan ala ez izan, haiei atsegina sentiarazten dien testu multzoa da." (Etxaniz, 1997).

Gaur egun, Haur Literaturaren berpiztea dago, gero eta indar gehiago dauka eta honen zergatia, batez ere, haurtzaroa ulertzeko dagoen ikuspuntu berria dela dino Etxanizek (1992), izan ere, gaur egun haurra bere nortasuna eta ezaugarriak dituen pertsonatzat ikusia da.

Moronek (2010) aipatzen du ipuinak errekurtso ezin hobeak direla umeentzat, pertsona eta toki ugari eta anitzak ezagutzeko aukera ematen baitute, haien kuriositatea, irudimena eta hiztegiaren hedapena eskainiz. Gainera, haien garapen intelektuala garatzen da eta haiek prozesuaz gozatzen dute, asko dibertitzen direlako ipuinak entzuten eta ikusten; haien identitatea eraikitzeko erreminta oso baliotsua da.

Ildo beretik doa Moreno (2003, apud Ochoa et al., 2006) azpimarratzerakoan ipuinak oso garrantzitsuak direla hizkuntzaren garapenerako, Haur Literaturak hizkuntza eta irudiak erabiltzen dituelako sentimenduak, ohiturak, baloreak eta bestelako manifestazio kulturalak azaleratzeko.

### 1.2.1 Ideologia Haur Literaturan

Lluchek (2003) ideologiaz hitz egiterakoan, ideologia kontzeptu, sinesmen eta idealen multzo bat dela aipatzen du, eta horrek mundua modu batean edo bestean ikustera eramaten gaituela dio. Bere ustez, Haur Literaturaren kasuan, ideia, arau, balore, sinesmen, iritzi, aurreiritzi edota emoziozko jarrerak helarazten dira narrazio eta ipuinetako irudiaren bitartez. Beraz, autore honen arabera, kontakizun guztiek, neurri batean, ikuspegi ideologiko bat transmititzen digute, ideologia bat transmititzen ez duen obrarik ez dagoela azpimarratuz.

Pomaresek (2020) ere Lluchi (2003) goian irakurri dioguna berresten du esaten duenean Haur Literatura dela “uno de los elementos más implicados en la transmisión de ideas y valores, ya que participa en la construcción de la realidad, reproduciendo, generalmente, los estándares establecidos por la cultura y la sociedad donde se elabora” (Pomares, 2020, 13 or.).

Etxanizek (2003a) ere bat egiten du ideia horrekin, eta hurrengoa zehazten du: “testuen zein irudien estiloa, lexikoa edota erabilitako hizkuntza, pertsonaiak, euren rolak, zenbait estereotipoen jarrerak… sustatzen dute ideologia jakin bat, diskurtso moral zehatz bat helaraziz, hain zuzen ere” (Etxaniz, 2003b).

Halaber, Pomaresek (2020) bere egiten du Aguilarrek (2008) dioena, hau da, demostraturik gelditu dela Haur Literaturako zenbait elementuk (ilustrazioak, baloreak, deskripzioak, protagonistak…) eragiten diotela neska-mutikoen izaeraren eraikuntzari. Hori dela eta, aditu honen ustez, beharrezkoa da Haur Literaturan agertzen den genero irudia ikusaraztea eta berrikustea.

Ochoak et al. (2006) baloreen artean, ipuinen bitartez patriarkatuaren ideologia transmititu ahal dela eta benetan transmititzen dela esaten zuten hurrengo hitzekin: “Los cuentos, transmiten ideologías como la patriarcal, que van a contribuir a reproducir este orden, en el que las niñas son las más discriminadas, ya que presentan la realidad de género estereotipada” (124 or.)

Hortaz, goiko paragrafoetan irakurri dugunaren arabera, Haur Literaturan ere baloreen transmisioa badago. Aurreko baieztapenaren harira, Murillok (2012) gaineratzen du Haur Literatura herrialde bakoitzeko kulturaren ispilua dela, eta honela azaltzen digu:

> No tenemos que olvidar que cada país tiene una política más o menos desarrollada que rige las publicaciones infantiles, lo cual significa que la obra literaria infantil manifestará implícitamente estas políticas de creación, que se convierten en el conjunto de símbolos que definen una cultura o una sociedad determinada. (16 or.)

Beraz, herrialde bakoitzean Haur Literaturan jasotzen diren argitalpenek politika desberdin bat daukate eta herrialdean dauden ildoak jarraitzen dituzte.

### 1.2.2 Hezkidetza Haur Literaturan

Lockek (1693, apud Jimenez, 2019) umeak jaiotzerakoan *tabula rasa*, hau da, orri zuri bat direla defendatzen duen teoria azaldu zuen. Autore honek baieztatu zuen familiek umeak moldatu ahal zituztela zigor, errepikapen, sari eta imitazioen bitartez, orri zuri hori eraldatuz, eta umeak, esperientziaren bitartez, orri zuri hori eraldatuz eta betetzen doazela. Hala ere, gaur egun ikusi da lehenengo urteetan familia baino eskola dela ume baten eragile nagusia, baina eragile bakarra izan gabe Bolivarren (2006) ustez. Autore honek dioenez, eskola eta irakasleak ez dira ume baten Hezkuntzaren eragile bakarrak, familia eta komunikabideak ere, nagusiki, oso garrantzitsuak dira ume baten Hezkuntza prozesuan. Beraz, Lockeren teorian oinarrituz, eta Bolivarren baieztapena kontuan hartuz, umearen bizitzan parte hartzen duten eragile guztiek (eskola, familia eta komunikabideak) orri zuri horren ardura eta erantzukizuna daukate nolabait, lehenengo urteetan batez ere.

Arrazoi horrengatik, umeari hitzez adierazitakoak eta eskainitako testuek zein irudiek berarengan eragina izango dutela presente edukiz, umeen eragile nagusien (familia eta eskola) esku dago Hezkidetzan oinarritutako baloreak helaraztea, Gutiérrezek eta Ibañezek (2012) esan bezala.

Hurbildu gara dagoeneko lehen egin dugun galderaren erantzunera eta arazoaren konponketara. Izan ere, Lópezek (2014) aipatzen duen moduan, haurtzarotik hainbat bortizkeria ekidin daitezke, eta gizon-emakumeen rolak eta estereotipoak egoki landuz gero, genero bortizkeria ekidin daitekeen bortizkeria horietako bat da. Gainera, aditu batzuen arabera, Haur Literatura erreminta oso baliagarria da baloreak lantzeko, besteak beste, errespetua, elkartasuna, baita genero berdintasuna ere (Pomares, 2020).

Ipuinak, aipatu bezala, erreminta oso garrantzitsu eta erabilgarriak dira umeek mundua irudi eta istorioen bitartez ezagutzeko, eta gizartearen arau, sentimendu, balore, hiztegi, portaera eta beste kontzeptu anitzak bereganatzeko. Horregatik dio Pomaresek (2020), Haur Literatura edozein modutan erabili aurretik, funtsezkoa dela irakurleei transmititzen zaizkien mezuak ondo aztertzea. Horrela, haurrei helarazten dizkiegun ipuinetan, adibidez Hezkidetza helburutzat hartuz, ekidin dezakegu, neurri batean, genero bereizkeria birproduzitzea.

Colomerrentzat (2010) Haur Literaturan generoak izugarrizko garrantzia du, lehen esan bezala, literaturaren bidez hainbat rol helarazi daitezkeelako, eta umeek dena irensten dutelako, adibidez, emakumeok alaba, emazte eta ama besterik ezin garela izan, urte

luzeetan zehar, hiru rol horiek betetzen baino ez baikara agertu argitalpenetan (Aguilar, 2008). Aizpuruak eta Lasartek (2013) aipatzen dute Colomerrek egindako azterketa batean hori nabarmendu zuela: haurren eskuetan jartzen diren ipuinetako emakumeek irakurlearen amaren adina izan ohi dutela eta emakume horiek etxekoandreak direla.

Ochoak et al. (2006) Merida (Extremadura) hiriko eskoletan bi ikerketa burutu zituzten, lehena, eskoletako irakasleek haurrei gehien irakurtzen zizkieten ipuinak aztertuz, eta bigarrena, umeek gehien irakurtzen zituztenak. GrAL honetan hori aztertu da, hain zuzen, zein diren irakasleek haurrei gehien irakurtzen dizkieten albumak, eta haurrek beraiek zeintzuk dituzten gustukoen. Metodologia atalean azalduko dugunez, hori izan da lan praktikoan aztertu diren albumak eta ipuinak aukeratzeko abiapuntua.

Ikerlari hauek hurrengo ondoriora heldu ziren: ipuinek baloreak helarazten dituzte, baina ikertutako ipuinetan, genero aldetik balore negatibo gehiago daude positiboak baino: emakume eta gizonen arteko desberdintasuna erakusten dituzten diskriminaziozko jarrerak daude sexuagatik, adinagatik, itxuragatik, beste askoren artean, eta emakumeen zein gizonen arteko lehiakortasuna ere erakusten dituzten jarrerak ageri dira. Honek guztiak mesede gutxi edo oso gutxi egiten dio berdintasunean eta bizikidetzan oinarrituriko Hezkuntzari, biolentzia sustatzen dituzten jarrerak agertzen diren heinean: emakumeak euren artean lehiatzea ederrena izateko; mutilen arteko lehia indartsuena izateko; irainak estereotipoak erreproduzitzen ez dituzten pertsonei zuzenduak, edota fisikoki gizarteak inposatutako kanonak betetzen ez dituztenei, besteak beste.

Ildo beretik, Marinek (2014) estereotipoak ez erreproduzitzearen garrantziaz ohartarazten du, eta hainbat enpresa komertzialek haur kulturan genero estereotipoak sustatzen dituztela salatzen du. Hori dela eta, irakasleok jakitun izan behar gara enpresa horiek zer kultura mota bultzatzen duten, eta horrek haurren nortasunean nola eragin dezakeen (honen adibide ditugu Walt Disneyren pelikulak edota ipuin tradizionalak).

Eta hor egon daiteke gakoetako bat, irakasleon (helduon) kontzientziazioan, hain zuzen. Izan ere, Pomaresek (2020) Sasiain eta Mateosen (2006) zita eginez, hauxe esaten du:

> La Literatura puede ser tanto un instrumento de liberación como de limitación, por eso es necesario utilizarla bajo una perspectiva coeducativa y de género, previniendo la transmisión de conductas sexistas, y a la vez, aprovechando su potencial para fomentar conductas igualitarias. (15 or.)

### 1.2.3 Sexismoa: Definizioa eta inplikazioa

Lan honetan gakoak diren Hezkidetza eta genero berdintasuna izanik, ezin aipatu gabe utzi beren ifrentzua, hau da, sexismo jokabidea edo genero diskriminazioa, eta horrek Haur Literaturan duen isla.

EUSTATek (Euskal Estatistika Erakundea) bere webgunean, sexismoa zer den definitzean, sexismo kontzeptuaz adierazten du gizarte patriarkatuak jokatzeko dituen metodoen ondorioz, pertsonei sexuaren arabera pribilegioak ematen zaizkiela edo pertsonak bereizi egiten direla, eta ezarritako muga horien eraginez, pertsonei ez zaiela uzten daukaten giza gaitasun guztia garatzen.

Eizagirrek (2013) estereotipo sexistak ikertu zituen, eta eskolan dauden materialetan fokua jarriz, hurrengoa egiaztatu zuen:

> Testu liburu, literatura liburu eta beste material didaktikoetan azaltzen diren estereotipoak linealtzat mantentzen dira, euren bidea jarraituz. Estereotipo maskulinoari dagokionez: indartsu, azkar eta independente gisa definitzen da gizonezkoa, eta estereotipo femeninoari dagokionean berriz, menpeko, maitekor, zaintzaile eta kolaboratzaile gisa agertzen da emakumea. (16 or.)

Eizagirrek nabarmendu zuenez, horrek zentzu guztietan eragina dauka, inkontzienteki, literaturan zein beste material didaktikoetan, ageriko estereotipoak agertzerakoan, horiek erreproduzitzera eramaten baitute: mutilak indartsuak, independenteak, eta emakumeak politak eta sentiberak diren moduko estereotipoak erreproduzitzera, hain zuzen ere. Ondorio moduan adierazi zuen estereotipo sexistak ezabatzeko lehen pausua sexismoa (kontziente eta inkontzientea, agerikoa zein ezkutua) detektatzea izango litzatekeela (Eizagirre, 2013). Hau da, Pomaresek (2020) adierazi zuen moduan Estradaren (2013) ideia berretsiz, Haur Literaturan sexismoa badagoela kontzientzia hartzea beharrezkoa dela, eta berdintasuna bultzatzen duen beste literatura bat bultzatu beharra dagoela, edo behintzat, estereotipo eta genero rolak birprodukzitzen ez dituena.

Azken finean, Aguilarrek (2008) jaso zuen Cassanyren (2006) hurrengo ideiarekin bat egiten dugu: beharrezkoa da neskei eta mutilei laguntzea Haur Literaturarekiko pentsamendu kritikoa garatzen, gizarte patriarkalak botere harremanak transmititzeko bidetako bat delako Haur Literatura. Hori dela eta, haurrak literaturak agertzen dituen irudikapen horiei buruz balorazio kritikoak egin ahal izateko prestatu behar dira.

### 1.3. Ilustrazioak Haur Literaturan: Album ilustratuak

Behin aurreko atal batean Haur Literaturak daukan balioa eta garrantzia ikusita, pasa gaitezen irudiek umeengan zer eragin daukaten aztertzera. Horretarako, irudien garrantziari loturik baitago, atal honetan album ilustratua aztertuko da, Haur Hezkuntzako etapan gehien kontsumitzen diren liburu eredua baitira.

Hitzek haurraren imajinazioa pizten badute, marrazkiek pertsonaia eta egoerak zehaztasun osoz definitzen dituztela esaten du Gabiriak (2001). Hortaz, Haur Literaturan ezin dira ilustrazioak albo batera utzi, marrazkiak hitzak bezain inportanteak baitira, inportanteagoak ez badira, eta letrak irakurtzen ez dakitenentzat, zer esanik ez. “El álbum es una narración de imágenes secuenciales fijas e impresas afianzado en la estructura del libro, cuya unidad es la página, la ilustración es primordial y el texto puede ser subyacente” (Bosch, 2015, 7 or.).

Hosterrek eta Gomezek (2013, 70 or.) irakurtzen ikasi ez duten umeentzat album ilustratua oso material baliagarria dela gogoratzen digute, ilustrazioak irakurtzen ikasteko laguntza handia ematen dietelako, irudiek testuarekiko erlazio oso estua dutelako.

Sardik (2013) dio album ilustratu bat irakurtzerakoan, irakurtzeko modu berri horrek liluratzen gaituela, ilustrazioek daukaten presentzia handiagatik; gainera, ilustrazioak eta testuak elkarrekiko lotura estua daukate, elkar osatzen dute, eta hainbatetan, testuak kontatzen ez diguna ilustrazioak esaten baitigu (Sardi, 2013).

Colomerrek (2002), Lionni (1999) diseinatzaile grafiko eta haurrentzako liburuen autore italiarrak aipatutako ideia ekartzen du gogora hurrengo paragrafoan: Lionniren ideiari jarraituz esaten du bi kode desberdin integratzen dituen prozesu horretan, irakurleak album ilustratuekin istorioen zentzua aurkitzen saiatzen dira, eta horrek eragin ona izango duela haurren irudimenaren garapenean:

> Uno de los ingredientes más importantes para estimular y dirigir la imaginación infantil es el libro-álbum. Pues es allí donde el niño tendrá su primer encuentro con una fantasía estructurada, reflejada en su propia imaginación y animada por sus propios sentimientos. (Lionni, 1999, apud Colomer, 2002, 20or.)

Hortaz, Lionniren arabera, bi kode desberdin integratzen dituen prozesu horretan, irakurleak album ilustratuekin istorioen zentzua aurkitzen saiatzen dira, eta horrek eragin ona izango du haurren irudimenaren garapenean.

Ikusten denez, liburuak, ipuinak eta album ilustratuak dauzkaten ilustrazioak umeen garapen pertsonalean influentzia handiko baliabideak dira, eta Murillok (2012) dio errazagoa dela haurrentzat jasotako informazioa sinestea, ”orri zuriak” izateagatik eta euren esperientzia faltagatik.

Irudi batek mila hitz baino gehiago balio duela dio herri-esaera batek, eta arrazoia agerikoa da: gure memoriak irudiak hitzak baino hobeto gogoratzen omen ditu, irudiak ez baitira apaingarriak edo dekorazio elementuak soilik. Gaur egun, gainera, irudiak gure bizitzako elementu oso garrantzitsu bihurtu direla ezin da ukatu.

Irudiek informazioa, baloreak, ezagutzak, ideiak eta gustuak transmititzen dizkigute, baina Erasok (2014) konturarazten gaitu horrek ekar dezakeen arrisku batez ere bai: umeek kontsumitzen duten haurrentzat sorturiko ikus-entzunezko kultura, alderdi eztabaidagarriak (matxismoa, arrazismoa, sexismoa...) transmititzen dituzten multinazionalek kontrolatzen dute, hala nola, Disneyk, Pixarrek...

Marinek (2014) ere irudiek ideiak, baloreak eta sinesmenak transmititzen dizkigutela berresten digu hurrengo paragrafoan:

> Las imágenes no son neutras. Ni tampoco la mirada que proyectamos sobre ellas. No existen imágenes denotativas, en las que no exista grado retórico de información. Dicho de otro modo, no hay imagen que sólo transmita información sobre ella misma (López F. Cao, 2002, 204 or., apud Marin, 2014, 15 or.).

Ilustrazioek hainbat gauza komunikatu ahal digutela kontuan hartuz, Aizpurua eta Lasartek (2015) genero ikuspegitik ilustrazioei fokua jarriz, hurrengoa adierazi zuten: “Literaturan ilustrazioak duen garrantzia aparta da, eta zenbait kasutan, testua baino sexistagoa da. Izan ere, sexuen arteko rolak askoz ere modu argiagoan ikusten dira marrazkien bidez, hitzen bidez baino” (48 or.).

### 1.4. Gela-liburutegiak

Azkenik, GrAL honetan beste ildo nagusi bat denez Haur Hezkuntzako haurrek albumak eta ipuinak non dituzten eskura, hau da, nagusiki nondik hartzen dituzten, eta espazio hauek gela-liburutegiak izanik, jarraian, gela-liburutegien inguruan zenbait ideia azalduko dira.

Villaranak (2009) gela-liburutegiaz dio umeei zuzendutako aldizkariz, liburuz eta beste materialez osaturiko gela barruko espazioa dela. Dena den, gela-liburutegia egoteak ez du esan nahi eskola-liburutegia ez dagoenik eskolan, Villaranaren ustez, aberasgarria baita bi espazioak edukitzea, eta bataren presentziak ez du bestearena ekiditen edo baliogabetzen, bakoitzak bere funtzioa baitu. Izan ere, Salaberriaren (1991) ustez, gela-liburutegiak eta eskola-liburutegiak bi estrategia desberdini erantzuten diete: irakasteko aktibitateei, lehenak, eta ikasteko aktibitateei, besteak.

Gela-liburutegia Haur Hezkuntzako azken zikloan eta Lehen Hezkuntzako lehenengoan erabiltzen da bereziki, eta handik aurrera ikasleak eskola-liburutegira bideratuko dira (Federación de Enseñanza CCOO, 2010).

Ruedak (2005) gela-liburutegiak eta eskola-liburutegiak dituzten abantailak aztertzerakoan, zenbait desberdintasun aurkitzen ditu bi espazioen artean. Hona hemen berak aipatutakoak: gela-liburutegian irakurtzeko dagoen motibazioa zuzenagoa da: umeek gela-liburutegia zaindu eta antolatu behar dute, eta eskola-liburutegia, aldiz, liburuzainaren lana da soilik. Horretaz gain, gela-liburutegiak pertsonalagoak eta erakargarriagoak suertatu daitezke dekorazio aldetik, gela horretan dauden umeen beharrizan eta ezaugarrietara egokitu ahal direlako.

Bi espazio hauen arteko konparazioarekin jarraituz, Ruedak (2005) gaineratzen du gela-liburutegia gelako haurren ezaugarrien arabera molda daitekeela, hau da, funtsa moldagarriagoak eta probetxugarriagoak izan ditzakeela, baina eskola-liburutegiak, aldiz, publiko zabalago baten interesei erantzun behar die. Horrez gain, Villaranak (2009) gela-liburutegiak, gelan bertan, umeen eskura material aberasgarriak jarri ditzakeela, umeek irakurketarekin gozatzeko eta haien erritmo eta mailan ikasteko. Ildo beretik, Ruedak (2005) gehitzen du umeek liburuekin kontaktuan jartzean, liburuarekin erlazionatzen ikasten dutela, hau ukituz, usainduz eta batez ere, liburuak mimatuz. Gune honek dituen abantailak aipatzen segituz, aditu honek adierazten du baliabide anitzen gunea ere badela, hau da, bertan ikasleek euren kuriositatea asebeteko dutela ikasten.

Fernandezek (1999) gela-liburutegien alde beste bi ideia gehitu zituen: bata, gela-liburutegiak irakurketari mesedegarri izango zaion giroa sortzeko aukera paregabea izatea, eta ikasleen sorkuntza lanak eta aldizkariak argitaratzeko gune aproposa bestea.

Dena den, Salaberriaren (1991) hurrengo gogoeta honekin bat eginez, ez dezagun ahantz gela-liburutegiak zein eskola-liburutegiak beharrezkoak direla eskoletan:

> Lo esencial es familiarizar [al niño] con el libro y desarrollar comportamientos de lector. No opongamos biblioteca escolar y biblioteca de aula... Son necesarios los libros en el aula y son necesarias las bibliotecas escolares. Es una cadena y hay complementariedad (55 or.)

Honaino GrAL honen ildo nagusien ikerketa teorikoa. Honen bitartez ipuin eta albumen irudiek ideologia transmititzen digutela ikusi dugu. Halaber, adituek ohartarazi gaituzte ahalegin berezi bat egin behar dela detektatzeko genero bereizkeria islatzen duten material oro, baita irudiak ere, haurrentzat eredu bihur ez daitezen, horiek iragazkirik gabe kontsumitzen badituzte, horiek erreproduzitzeko arriskua baitago. Horregatik umeen eragile nagusiak (familia eta irakasleak) gaian arreta handia jarri behar dute,

Hezkidetzan oinarritutako materiala eskainiz haurrei edota material sexistarekiko kritikoak izateko prestatzen.

## 2. HELBURUAK

Marko teorikoan argi geratu da Hezkidetzan oinarritutako hezkuntza baten garrantzia. Ezagutu dugu, halaber, adituen ustez, haurrei eskaintzen zaien materialetan ere genero-baloreak zaindu beharrak duen garrantzia. Era berean, jakin dugu beste aditu askoren iritziz eskolan eta familian lanketa berezia egin behar dela haurrek eredu sexisten aurrean iritzi kritikoa gara dezaten.

GRAL honen helburu nagusia izan da ikertzea Haur Hezkuntzako gela-liburutegietan dauden haurrentzako album ilustratuek berdintasunean oinarritutako baloreak agertzen dituzten, ala kontrara, Hezkidetzaren aurkakoak irudikatzen dituzten.

Helburu nagusi honetara heltzeko, beste helburu zehatzagoak ezarri izan dira:

1. Identifikatzea gela-liburutegietan dauden albumen artean, zeintzuk diren haurrei gehien gustatzen zaizkienak.
2. Ezagutzea zeintzuk diren irakasleek haurrei gehien irakurtzen dizkieten albumak.
3. Aztertzea Haur Hezkuntzako irakasleen kontzientzia maila Haur Literaturak duen boterea genero estereotipo eta sexismoa transmititzeko zein Hezkidetza lantzeko.
4. Konparatzea Aizpuruak eta Lasartek (2015) egindako ikerketaren ondorioak bat datozen ikerketa honetako ondorioekin.
5. Alderatzea lagineko bi ikastetxeen arteko emaitzak.

## 3. METODOLOGIA

Zehaztutako helburuak ikertzeko hiru fase burutu dira: lehena, ikerketa aurrera eramateko lagina eta ikerketaren diseinua eta plangintza zehazteari dagokio, bertan ikerketa burutzeko eman behar diren pausuak diseinatu eta planifikatu direlarik: lagina mugatu, informazio-iturriak bilatu, aztertzeko materiala aukeratu, ikerketarako tresnak diseinatu, ikastetxetara egin beharreko bisitak eta irakasleekin izan beharreko bilerak zehaztu. Bigarrena, ikerketaren burutze-fasea, hau da, irakasleentzako galdetegia pasatzea eta albumen azterketa gauzatzea izan da. Azken fasea, ikerketaren ebaluazio-fasea da, non egindakoa eta ateratako emaitzak hasierako helburuen arabera aurkezten diren. Azken fase hau Emaitzen eta Ondorioen ataletan azaltzen da.

Albumak ebaluatzeko metodologia kualitatiboa erabili da, aldez aurretik ezarritako irizpide batzuez osatutako irizpide-zerrenda baten bitartez. Haur Hezkuntzako irakasleen lagina oso mugatua zenez, galdetegiaren galderei emandako erantzunak, nahiz eta irakasleek ezarritako irizpideak kuantifikatu behar zituzten, modu orokorrean ere baloratu eta interpretatu dira.

### 3.1. Ikerketa aurrera eramateko lagina

Ikerketa praktikoa Bizkaiko bi eskola publikotan eraman dugu aurrera. Alde batetik, A eskola, kostaldeko herri batean dagoen eskola txiki bat da, eta bertan Amara Berri sistema metodologikoarekin lan egiten dute. Beste aldetik, hiri bateko eskola bat aztertu da, Bilbon dagoen B eskola.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko bina gela aztertu dira ikastetxeko, ilustrazioak nagusitzen diren bi ipuin, eta sei album ilustratu guztira. Izan ere, lehenengo zikloko liburuak errutinetan eta istorio oso sinpleetan oinarritzen dira, hori dela eta, ikerketa aurrera eramateko bigarren zikloko gela-liburutegietako album eta ipuin ilustratuak erabili dira. Bertan, istorio konplexuagoak eta irudi zein testu aldetik osotuagoak daude.

Irakasleei dagokienez, bigarren zikloko 4 tutore izan dira elkarrizketatuak, horietako bi 4 urteko umeen tutoreak dira, eta beste biak, 5 urteko tutoreak. 4 irakasleak 27-40 adin tartean dauden emakumeak dira, beraz, esperientzia gutxiko eta esperientzia handiko irakasleekin kontaktua izan dugu.

B ikastetxeko irakasleekin izandako elkarrizketan, "Ipuinen proiektua" martxan jarri dutela jakinarazi ziguten. Irakasleek gela-liburutegia antolatzen dute eta haiek dira materiala erosten eta haurren eskura jartzen arduratzen direnak. Proiektu honekin, erreferente berriak bilatzen dituzte, eta Hezkidetza baloreak lantzen dituzten materialak eskaintzeaz gain, ipuin klasikoak eta sexismorik bultzatzen ez dituzten ipuinak konparatu eta aztertu nahi dituzte: pertsonaiak, irudiak eta istorioak. Hortaz, ikastetxe honetako gela-liburutegi hauetan, ipuin eta album klasikoak ez oso "berdinzaleak" ere gela-liburutegiaren parte dira, horiek haurrekin modu kritikoan lantzeko.

A ikastetxean aldiz, umeak dira gela-liburutegia antolatzen dutenak. Astero, eskola-liburutegira doaz eta handik nahi duten materiala hartzen dute. Irakasleak eskola-liburutegiko materiala eta horrekin batera gela-liburutegikoa egokia ez dela jakin arren, umeek astero aukeratutako ipuin zein albumak gela-liburutegian dituzte irakasleek horien inguruko bestelako lanketarik egin gabe.

### 3.2. Ikerketaren diseinua, plangintza eta prozedura

Jarraian, ikerketaren diseinua, plangintza eta prozedura azalduko da, ikerketa burutzeko emandako pausuen deskribapenarekin, hau da, gaiarekiko Haur Hezkuntzako irakasleen kontzientzia maila ezagutzeko eta albumen ebaluazioa egiteko erabili ditugun tresnen deskripzioa eginez.

Lan praktikorako metodoaren lehen pausoa izan zen batetik, ikasleei galdetzea haien gela-liburutegitik zeintzuk ziren gehien gustatzen zitzaizkien albumak, eta bestetik, irakasleei galdetzea haiek haurrei zeintzuk irakurtzen zizkieten gehien. Pauso honekin gure azterketarako materiala jaso nahi genuen, aztertu diren albumak irizpide horren arabera aukeratu baitira. Horrekin batera, aztertutako geletako irakasleei galdetegi (ikus I eranskina) bat bete zezaten eskatu zitzaien, Haur Literaturaren bitartez, ideologia eta baloreak transmititu ahal direla bazekiten eta hori zaintzen zuten ondorioztatzeko helburuarekin.

Hurrengo pausoa album ilustratuen bidez, Hezkidetza eta genero berdintasunetik begiratuta, ikasleei zein irudi mota heltzen zaien, hau da, album ilustratuek haurrei helarazten dizkieten genero-baloreak zeintzuk diren jakitea izan da. Horretarako, albumetako irudien azterketarako zeintzuk izango ziren azter-puntuak zerrendatu ziren.

Amaitzeko, azterketarako irizpideak aplikatu dira hautaturiko album ilustratuetan eta ipuinetan. Era berean, galdetegietan jasotako erantzunak aztertu dira.

Ikerketa praktikoa burutzeko hiru erreferente izan ditugu:

Lehena, azterketarako materiala (albumak eta ipuinak) aukeratzeko: marko teorikoan azaldu dugunez, Ochoa et al. (2006) Merida (Extremadura) hiriko eskoletan burutu zuten ikerketan bezala, geuk ere, batetik, irakasleek haurrei gehien irakurtzen dizkieten albumak, eta bestetik, haurrek gehien aukeratzen dituztenak hartu ditugu horiek aztertzeko.

Bigarrena, irakasleen jarrera eta kontzientzia maila ezagutzeko: Aizpuruak eta Lasartek (2015) egindako ikerketan, GrAL honen abiapuntua izan diren kezka berdinak aztertu zituzten bi ikerlari hauek. Haien ikerketak bi fase zituen: alde batetik, irakasleei zuzendutako galdetegi bat sortu zuten, eta bestetik, eskola batean, behatu zuten irakasleek umeei ipuin edo album bat irakurtzerakoan jarraitzen zituzten irizpideak. Lan honetan, 15 galderaz osatutako galdetegia sortu dugu, funtsean, Aizpuruak eta Lasartek (2015) behaketa egiteko ezarritako irizpideak jarraituz. Honen helburuetako bat izan da haien ikerketako ondorioak eta gureak alderatzea, jakiteko sei urte igarota, gai honekiko irakasleen kontzientzian edo jokabidean aldaketa bat eman den edo ez. Izan ere, eskolako irakasleek honen kezka duten ikustea garrantzia handikoa da, irakasleak baitira materiala eskuragarri jartzen dituztenak eta umeen hezkuntza prozesuan eragile nagusienetarikoak.

Aipatu dugunez, galderak Aizpurua eta Lasarteren ikerketan oinarrituta daude, baina gehitu zaie beste xede bat: jakin nahi izan dugu irakasleen iritziz, ipuin zein album ilustratuek genero-baloreak helarazteko baliagarriak ote diren, eta horrela bada, gela-liburutegiko ipuin edo albumak horiek helarazteko egokiak diren edo ez.

Hirugarrena, album ilustratuek haurrei helarazten dizkieten genero-baloreak zeintzuk diren jakiteko, albumetako irudien azterketarako zeintzuk izango ziren azter-puntuak zerrendatu genituen, CIMAk (Asociación de Mujeres Cineastas y de Medios Audiovisuales, 2020) aholkatzen dituen jarraibideak kontuan hartuz (ikus 1 Taula). CIMAk material audiobisual egokiak aukeratzeko edo egiteko jarraitu beharreko pausuak eman zituen, baina, era berean, eredu lez har daiteke haurrekin lantzen diren ipuinak zein albumak, edo haurren eskuetan jartzen diren album eta ipuinak (eskolan edo etxean) aukeratzerakoan. Halaber, oso jarraibide egokiak eta erabilgarriak dira genero bereizketak eta eduki eta irudi sexistak detektatzeko eta horiek alboratzeko.

Hau guztia kontuan hartuz, aztertutako materialetako baloreen arabera zer nolako gela-liburutegiak ditugun ondorioztatuko da, azterketarako erabili diren album zein ipuin guztiak espazio horretan zeudelako.

### 3.2.1 Ikasleek aukeratutako eta irakasleek aurkeztutako ipuin eta albumak

Lehenengo, ikastetxeekin hitz egin zen umeei gehien gustatzen zitzaizkien album zein ipuinak ezagutzeko eta gero, irakasleek gehien irakurtzen dizkieten ipuin zein albumak aukeratu ziren. Ondoren, azterketarako ipuin eta album ilustratuen zerrendak ageri dira.

**A ikastetxea:**

- Denou, V. (1989). *Teo Azokan.* TIMUN MAS S.A Argitaletxea, 1989

- Libsa (2004). *Sirenatxoa*, Ttartalo Argitaletxea, 2004..
- Martinez, M. (2009). *Conoce a Hello kitty.* Medialive Content Argitaleltxea, 2009..
- Murua, Mitxel. (1999). *Mari Kanela*. Murua Elkarlanean Argitaletxea, 1999.


**B ikastetxea:**


- Castello, A., Morea, M. eta Babeth (2020). *Mamo.* Destino Argitaletxea, 2020.
- Diez, N. eta Moreno, P. (2019). *Edu se viste de princesa.* Bellaterra.
- Gudes, B. eta Macias, P. (2014). *Bazen bitan Sirenatxoa.* Cuatro tuercas.
- Isern, S. (2021). *Daniela Pirata.,* Nubeocho.


### 3.2.2 Irakasleei galdetuz

Lehenik eta behin, irakasleekin burutu den ikerketa aurrera eramateko, bigarren zikloko A eta B eskolako tutoreekin bildu, ikerketaren helburuak azaldu, eta galdetegia eman genien. Galdetegian, 1-5eko zenbakien bitartez esaldi bakoitzeko adostasuna adierazi behar zuten, 1 zenbakiarekin itemarekiko desadostasuna eta 5 itemarekin erabat ados daudela adieraziz. Guztira, 15 galdera dira eta hurrengo gaiekin zeuden lotuta: gelan haiek eskainitako materiala Hezkidetzan oinarrituriko materiala den; ipuin zein albumak baloreak lantzeko erreminta baliagarritzat daukaten; eta gela-liburutegiko materiala genero ikuspuntutik balore negatibo edota positiboak helarazten dituzten.

### 3.2.3 Albumak aztertuz

Behin oinarri metodologikoa zein den argituta, lan honen atal garrantzitsuenean sakonduko da. Goian azaldu bezala, Bizkaiko bi eskolatan, 4 gela-liburutegietako 2 ipuin eta 6 album ilustratu aztertu dira. Esan bezala, albumen azterketa egiteko irizpide-zerrenda ezartzerako orduan CIMAk (2020) ezarritako jarraibideak kontuan hartu dira. Hurrengo Taulan (1 Taula), CIMAren jarraibideak gure azterketarako irizpide-zerrenda bihurturik agertzen dira.

**1. Taula**

*Albumak aztertzeko irizpide-zerrenda CIMAren jarraibideak kontuan hartuz*

| CIMA-ren JARRAIBIDEAK | ALBUMEN AZTERKETA EGITEKO IRIZPIDE-ZERRENDA |
|---|---|
| 1. Emakumeak eta neskak egon badaude, existitzen dira (nahiz eta protagonista gisa gutxiagotan agertu). | ▪ Zein da protagonistaren generoa?<br>▪ Emakume-neska protagonistek badute izenik? |
| 2. Emakumeak eta neskak egon badaude, existitzen dira... eta ez dira bakarrik amak, etxekoandreak, printzesak, bikotekideak, sirenatxoak, sorginak, alabak... | ▪ Zelakoa da pertsonaia femenino(ar)en deskribapena edo irudia?<br>▪ Eta pertsonaia maskulino(ar)en deskribapena edo irudia? |

| | |
|---|---|
| | ▪ Zeintzuk dira pertsonaia nagusiarekin erabilitako koloreak?<br>▪ Eta beste pertsonaiekin erabilitako koloreak? |
| 3. Emakumeak ez daude bakarrik haurren eta etxeko ardura hartzeko. | ▪ Familiak agertzen badira, nola daude familiak aurkeztuta? |
| 4. Emakumeei eta neskei gorabeherak gertatzen zaizkie, gertaerak bizi izaten dituzte.<br>5. Emakumeak eta neskak anitzak dira. Aniztasuna aldarrikatzen dituzten erreferenteak aurkeztu.<br>6. Behatu eta zaindu pertsonaiak mugitzen diren espazioak. | ▪ Zer agertokitan agertzen dira pertsonaia femeninoak? Pertsonaia horiek zer egiten dute?<br>▪ Zer agertokitan agertzen dira pertsonaia maskulinoak? Pertsonaia horiek zer egiten dute? |
| 7. Genero bortizkeriari eta sexu indarkeriari erreparatu, ipuin eta irudietan modu ezkutuan ager daitezkeelako.<br>8. Genero bereizketa eta sexu indarkeria mota asko daude, horiei adi egon eta horiei behatu. | ▪ Nola tratatzen da maitasuna? |
| 9. Beharrezkoa da erreferente berriak sortzea. Genero estereotipoak suntsitu behar dira.<br>10. Gizontasun edo maskulinitate erreferente berriak landu. | ▪ Zein da ipuinaren mezua? |

## 4. EMAITZAK

Atal honetan, bi ikastetxeetako irakasleei egindako galdetegien eta ipuinen azterketen emaitzak ebaluatuko dira. Lehenik eta behin, gela-liburutegietan zein material aurkitzen den azalduko da; jarraian, haurrek eta irakasleek zein album hautatzen duten; ondoren, gure ikerketarako lagina izan diren sei album ilustratuak eta bi ipuinak aztertuko dira, Metodologiaren atalean zehazturiko irizpideen arabera. Galdetegiari dagokionez, argitu nahi dugu gure irakasleen lagina 4 irakaslek soilik osatu dutenez, emaitzak modu orokorrean baloratuko direla.

### 4.1. Gela-liburutegietan zein album eta ipuin dauden

Ikerketarako ikastetxeak hautatu genituenean (ikerketarako erraztasunengatik aukeratu genituen), ez genuen espero bi ikastetxeek eskainitako materialen artean hain alde handia egotea, eta beraz, gela-liburutegiak hain desberdinak izatea.

B ikastetxeko gela-liburutegiaren osaketari erreparatu eta batera, nabaria da Hezkidetzan oinarrituriko ipuin zein albumak badaudela eta erreferente berriak eskaintzearen kontzientzia badaukatela. Izan ere, lehen aipatu dugunez, “Ipuinen proiektua” aurrera eramaten ari dira. A ikastetxean, aldiz, oso zaharkituak dauden materialak daude, ez bakarrik material horiek daukaten urteengatik (material askotan pezetetan ageri da prezioa), baizik eta, bereziki, bertako ipuin eta albumek transmititzen

dituzten genero-ereduengatik (estereotipoak, sexismoa, rolak, etab.). Beraz, bi ikastetxeen arteko alde izugarria ikusi dela aipatu beharra dago.

Horrez gain, materialaren zainketan ere alde handia dago. B ikastetxean ipuin zein album guztiak oso ondo zainduta daude, berriak direla dirudi, eta A ikastetxean, aldiz, material asko apurtuta dago eta istorio batzuk erdizka daude. Honek, zalantza barik, eragina du umeak erakartzerako orduan, ez baita berdina itxuraz ondo dagoen material bat hartzea, edo apurtuta dagoen material bat hartzea, umearen interesa oso ezberdina izango baita bata eta bestearekiko.

## 4.2. Haur Hezkuntzako irakasleek galdetegian emandako erantzunak

4 irakaslek erantzun dute 15 galderaz osatutako galdetegia.

Garrantzitsua zen gela horietako ardura daukaten irakasleei galdera batzuk egitea, haien erantzunak, hau da, gaiaren inguruko ezaguera eta kontzientzia, gela-liburutegian dauden istorioek transmititzen dizkiguten irudiekin eta mezuarekin bat zetozen ala ez jakiteko. Hortaz, gure helburua zen ezagutzea irakasleak jakitun ote diren haurrentzat darabilten Haur Literaturarekin hainbatetan ez dela baliagarria Hezkidetza eta genero berdintasunezko baloreak lantzeko, eta ondorioz, kontrako mezua eta baloreak transmititzen direla. Gainera, gela-liburutegietan eskainitako materiala desberdina izanez gero, ikastetxe bateko eta besteko erantzunak alderatzea garrantzitsua dela iruditzen zaigu, horren arrazoietan arakatzeko.

Planteatu diren galderen erantzunei dagokienez, (ikus I Eranskina) 15 galderetatik 4 erantzunetan irakasle guztiek bat egin dute (5 markatuz) hurrengo adierazpenetan: ipuin zein albumak material baliagarria dira baloreak helarazteko; horien bidez, haurrei estereotipoak helarazi ahal dizkiegu, garrantzitsua da berdintasunean oinarrituriko materiala eskaintzea eta ilustrazioak garrantzitsuak dira. Beraz, emandako erantzunak ikusita, esan dezakegu gaiarekiko kontzientzia duten irakasleei galdetu izan diegula.

Hurrengoko 11 galderak azterturik ikusi izan dugu bi ikastetxeen emaitzak banatu behar ditugula haien erantzunak ulertzeko. Izan ere, gela-liburutegian maitasun erromantikoa, sexismoa eta estereotipoak jarraitzen dituzten ipuin zein albumak daudela erantzun dute bi ikastetxeek baina bi ikastetxeen arteko desberdintasun argi bat ikusi da, nahiz eta bietan aipatutako alor guztiak batzen dituen materiala eduki. A ikastetxeko gela-liburutegian nagusi da aipatutako materiala baina irakasleek ez dute inolako lanketarik egiten ipuin zein album horiekin, nahiz eta kontziente izan umeentzat eskuragarri daudela. B ikastetxean aldiz, irakasleak dira horiek jarri dituztenak lanketa bat egiteko asmoarekin: ipuin tradizionalak bertsio gaurkotuekin alderatzen dituzte, emakumezko egileei garrantzia ematen diete, protagonisten posturak eta jantziak analizatzen dituzte, erreferente berrien garrantzia azpimarratzen dute. Horrez gain, A ikastetxeko irakasleek ez dute gela-liburutegiko materiala hartzen, haien etxetik ekarritako album ilustratuak irakurtzen dizkiete. B ikastetxean aldiz, gela-liburutegian dagoen materiala erabiltzen dute beti. A eta B ikastetxeetan, bat egiten dute ipuinak eta albumak umeekin irakurri baino lehen haiek irakurri behar dituztela, baina B ikastetxeak ez ditu moldaketak egiten irakurtzerako orduan, hizkuntza sexista lantzeko

helburuarekin, A ikastetxeko irakasleek aldiz, moldaketak egiten dituzte. Azkenik, B ikastetxekoek garrantzia handia ematen diote gelan irakurtzen dizkieten ipuin zein albumetan nesken eta mutilen agerpena orekatua egoteari, A ikastetxean aldiz ez dute hau kontuan hartzen.

## 4.3. Haurrek eta irakasleek hautaturiko albumak

Ikerketa honen ardatz diren 2 ipuinen eta 6 album ilustratuen azterketaren emaitzak adieraziko dira azpiatal honetan. Irizpide-multzoa (ikus II Eranskina) ipuin bakoitzari aplikatuz ikusiko dugu zeintzuk diren albumetako ilustrazioek haurrei helarazten dizkieten neska eta mutil, familia, eta gizarte ereduak, baita zein bereizgarri, marka eta ezaugarri psikologiko eta sozial atxikitzen zaizkien sexu bakoitzari ere.

### *4.3.1. Protagonistaren generoa eta izena*

Izena duenak izana duela esaten da euskaraz, baita alderantziz ere: izana duenak izena du. Hasi gaitezen, beraz, izana eta izenarekin.

Haurren eskura dauden albumetan, izanak (protagonista edo pertsonaia bat) ez du beti izenik: *Sirenatxoa* albumaren inguruan, zentsu figuratibo izaera duen izena da, baina ez pertsona izen bat. *Teo azokan* albumaren kasuan, protagonista mutil bat da eta izenik badu, baina bertan agertzen diren emakumeek ez dute izenik.

Beste albumetako protagonistak neskak eta beste mutil bat dira, eta guztiei pertsona izena eman zaie: Kitty, Mamo, Daniela eta Mari Kanela. Azkenengo honetan, protagonistak “Mari” osagaia du aurretik, bere andereñoa bezala, ipuinean “Mari Petral” izenarekin aurkezten baita.

Azken osagai honen inguruan, Emakundek (Emakumearen Euskal Erakundea, 2008) euskararen hurrengo erabilera sexista salatzen zuen: Euskal hiztegian “Mari” aurrizkiaren definizioan emakumezkoei erdeinuz izendatzeko elkarketak osatzeko erabiltzen den hitza da, eta zenbait adibide eskaintzen zuten: Mari-matraka, Mari-zirtzil, Mari-mutil, Mari-purtzil...

Beraz, *Mari Kanela*n bi emakume pertsonaiek izen bat eduki arren, izen hori hizkuntza sexistan oinarriturikoa dela esan dezakegu.

### *4.3.2 Zelakoa den pertsonaia maskulinoaren eta femeninoaren deskribapena*

A eta B ikastetxeetako ipuin zein albumetan, emakume guztiak argalak dira eta azal zuria daukate, orokorrean ilegorriak, ilehoriak, ile zuriak eta gaztaina-koloreko ilea daukate, *Mamo* albumean izan ezik, Mamok, protagonistak, ile urdina baitauka.

A ikastetxeko materialean, ipuin eta album guztietako pertsonaia femenino eta maskulinoaren deskribapena oso estereotipatua dela esan dezakegu; *Conoce a Hello Kitty, Sirenatxoa, Mari Kanela* eta *Teo azokan* emakumeen deskribapenetan, neska polit eta arrosa baten irudia, edota etxeko andrearen irudia ageri da. *Teo azokan* albumean batez ere, agertzen diren ia emakume gehienak etxeko andreak direla erakusten zaigu. *Conoce a Hello Kitty* eta *Sirenatxo* albumetan, emakumearen irudia oso sentikorra, eskuzabala, goxoa eta sentsiblea da.

Pertsonaia maskulinoak aldiz, pertsonaia indartsuak, langileak eta dotoreak dira. Azal kolore zuria daukate eta gaztaina-koloreko ilea, ile horia edota ilegorria. Pertsonaia independenteak direla esan dezakegu, eta haien agertokiak umeak edo etxea zaintzera mugatzen ez direla argi dago.

B ikastetxeko album zein ipuinetan (gogoratu “Ipuinen Proiektuan” murgilduta daudela tutore hauek), emakumearen irudia indartsua, ahalduna, maitekorra, sentibera, ausarta eta abenturazalea da. *Mamo, Bazen bitan Sirenatxoa* eta *Daniela Pirata*, emakume estereotipatuaren irudiarekin amaitzea bilatzen duten albumak dira, izaera oso aktibo bat erakusten baitute istorio osoan zehar; pertsonaia askeak eta independenteak dira.

Pertsonaia maskulinoaren deskribapenetan erreparatuz, fisikoari dagokionez, lau albumetan pertsonaia guztiak gaztaina-koloreko ilea eta azal zuria daukate *Daniela Pirata* albumean izan ezik, izan ere, bertan jatorri desberdinetako piratak ageri dira.

Hortaz, kontuan hartzen badugu pertsonaia guztiekin erabilitako azalaren kolorea, zuria izan da, beraz, Europar-arrazarekin lotuta dauden irudiak ageri direla begi-bistakoa da, nahiz eta gure gizartean zuria kolorea ez den kolore desberdinak dituzten pertsonak egon, ez dira bestelako eredu horiek agertzen.

Pertsonaien izaeretan zentratuz, *Mamo, Edu se viste de princesa* albumetan eta *Bazen bitan Sirenatxoa* ipuinean, pertsonaia maskulinoaren estereotipoarekin apurtzea bilatzen dute. Izan ere, pertsonaia maitekorrak, sentsibleak, eskuzabalak eta goxoak dira. Beste maskulinitate baten eredu bat aurkezten digute: orain arte, gizonezkoek esaldi mugatu eta zentzugabekoak esaten dituzten estereotipoak alboratuz, hauek komunikazioari garrantzia handia ematen dieten pertsonaiak dira, adibidez, haien sentimenduak adieraziz. Gainera, *Edu se viste de princesa* albumean, koloreak, jantziak eta ekintzak generorik ez daukatela ikusten dugu eta Eduk teorian emakumeenak diren jantziak eramatea maite du. *Daniela Pirata* albumean, aldiz, pertsonaia maskulinoak indartsuak, sentsibilitate bakoak, zakarrak eta harroputzak dira. Pertsonaia hauen ustetan, emakumeek betidanik pertsonaia maskulinoei esleitu zaien eremuetan ez dute tokirik, horrenbestez, pentsaera zaharkituta hau daukaten heinean, jarrera matxista daukatela esan dezakegu, horregatik, liburu honetan modu “negatiboan” karakterizaturik daude.

### *4.3.3. Pertsonaia nagusi zein bigarren mailako pertsonaiekin erabilitako koloreak*

Koloreek generoa ez daukatela sarritan entzun dugun arren, jostailu denda batera sartu eta berehala konturatzen gara arrosa eta urdin munduek guztiz banatuta jarraitzen dutela. Goazen ikustera Haur Literaturan haurrek kontsumitzen dituzten ereduetan bereizketa hau egiten jarraitzen den.

*Sirenatxoa*k lepoko arrosa bat darama istorioan zehar, eta gizaki bihurtzen denean, soineko arrosa bat darama. Mutila aldiz, istorio osoan jantzi urdinekin ageri da. *Mari Kanela* ipuinaren protagonistak bihotzez jositako soinekoa darama kolore argiekin, agertutako pertsonaia femenino guztiak bezala. Mutilak aldiz, kolore “neutroak” (urdina, berdea, marroia, grisa...) erabiltzen dituzte. *Teo azoka* albumean begi bistakoa da mutilen eta nesken arteko desberdintasuna koloreetan, pertsonaia asko agertzen baitira orrialde guztietan, eta emakumezkoek soineko eta jantzi argiak erabiltzen

dituzten bitartean, gizonezkoek jantzi ilunak erabiltzen dituzte. *Conoce a Hello Kittyren* orrialdeak arrosa kolorearekin beterik daudela esan dezakegu, istorioan zehar protagonistak zein berak erabilitako osagarriak arrosak baitira.

Hala ere, koloreek generoaren bereizkeriari jarraitzen ez dioten liburuak ere aztertu izan ditugu. *Mamo, Bazen bitan sirenatxoa, Daniela pirata* eta *Edu se viste de princesa* istorioetan, neskek ez dituzte soineko arrosak eramaten, eta mutilek praka eta kamiseta kolore neutroak, guztiek edozein kolore eraman ahal dutela ikusten da. Honek lotura zuzena du bertako istorioen mezuekin; izan ere, koloreen bitartez istorioaren mezuak indar gehiago hartzen du, erreferente berriak eskaini eta Hezkidetzan oinarrituriko baloreak helarazteko , garrantzitsua baita pertsonaien irudiak zaintzea.

Beraz, gure lagineko materialei begirada jarrita, genero estereotipoak ezarritako koloreak erreproduzitzen jarraitzen dituzten ipuin eta albumak badaudela argi geratu da, baina, hori aldatu nahi duten istorioak ere badaudela ikusi dugu, emakume eta gizon erreferente berriak eskainiz.

### *4.3.4. Familien aurkezpena*

Familiak umeen lehenengo urteetan, erreferente eta eragilerik nagusienak dira. Haur Literaturan, umeak istorioekin identifikatzea bilatzen da, horregatik, haiek bezala, istorioetako pertsonaia gehienek familia bat daukate. Gaur egun, familia anitzak daude eta aita, ama eta seme-alabez osaturiko familiaz gain, familia eredu gehiago ditugu, gizartearen aldaketen isla direnak. Familiaren partaideez gain, familiako kide bakoitzak bete behar dituen zereginak ere aldatzen joan dira, besteak beste, emakumeak bakarrik etxeko andreak izan daitezkeela ideia alboratuz.

Familia eredu gehiagoren agerpenak ez du, hala ere, bermatzen euren onarpenik, eta zenbait esparrutan errealitate hau erakustea ezinbestekoa da. Beraz, gela-liburutegiko materiala aztertuz, ekin diezaiogun aztertzeari umeen lehenengo urteetako beste eragilerik nagusienak (eskola) eskaintzen duen materialean gizartearen aldaketa hau jaso duen ala ez.

Aztertutako materialetan, familien agerpena guztietan gertatu da, *Conoce a Hello Kitty* albumean izan ezik. Beste guztietan, aita eta ahizpak, bi ama eta amaordea, aita eta ama edo ama soilik agertzen dira. Agerpenaz gain, dena den, eta lehenago esan bezala, garrantzitsua da behatzea haien agertokian familiako partaideek zer egiten duten.

*Bazen bitan sirenatxoan* eta *Sirenatxoan*, aita eta ahizpak daude, baina ez dute inolako ekintzarik egiten, haien irudia itsasoan ageri da soilik. *Mari Kanela*n, aldiz, protagonistaren amaren irudia sukaldean ikusten da, Mari Kanelari errieta egiten txokolatea falta delako, eta beraz, umearen eta etxearen zaintza ardura berak dauzkala uler dezakegu. Zaintza ardura *Teo azokan* albumean amak ere badaukala argi dago, bera baita azokara umeekin erosketak egitera doana, ipuin bereko beste emakumeak bezala.

Familiaren eredu berria eskaintzen zaigun *Mamo* albumean, mama eta mamiren irudia ez daukagun arren, amaordearen agerpena aztertu dezakegu. Mamo (amaordea), Kairekin (umea) lurrean jolasten ageri da, eta elkarrekin oso ondo pasatzen ari direla argi dago. *Edu se viste de princesa* albumean, protagonista, aita eta ama sofa berdinean

ageri dira hirurak jesarrita eta arreba sofaren alboan Edurekin hitz egiten, aholkuak eta babesa ematen.

Beraz, esan dezakegu, familiaren ereduek gizarte zaharkitu baten irudia datorkigula, eta bi albumetan (*Mamo*, eta *Edu se viste de princesa*) izan ezik, beste guztietan familiaren agerpena ez da oso garrantzitsua, ezta haiek egindako ekarpenak ere. Gainera, familia eredu guztiak, bat izan ezik, aita batez eta ama batez bakarrik osaturik daude. Honek, beraz, ez du gaur egungo aipatutako beste errealitatea erakusten.

#### *4.3.5. Maitasunaren trataera*

Maitasuna hitza entzuterakoan askori burura etorriko zaizkie pelikuletan agertutako amodio istorioak edota haiek bizitako erlazio istorioak. Hala ere, maitasuna ez da bakarrik bikotekide batekin sentitzen duzuna, maitasuna ere familiartean, lagunartean eta norberaren autoestimuan ematen dena da. Goazen orduan maitasun hitza geletako liburutegietan nola dagoen adierazita ikustera.

Alde batetik, maitasun familiarra adierazten duten albumak daude. *Edu se viste de princesa* albumean, protagonistari guraso eta ahizpak itzelezko babesa ematen diote, bera izatera bultzatuz. *Mamo* albumean ere maitasun familiarra ematen da, Kai mutilaren eta bere amaorde Mamoren arteko maitasuna, eta baita Mamo eta Kairen amaren arteko maitasuna ere, bi emakumeen arteko maitasuna guztiz normalizatuz.

Bestetik, *Daniela Piratan, Mari Kanelan* eta *Teo azokan* ez da maitasunik adierazten. *Conoce a Hello Kitty* albumean, lagunekiko eta ametsetako mutilekiko maitasuna azaltzen da, Kittyk leihoan igarotzen ditu askotan egunak bere ametsetako mutilarekin amesten. Mutil batekiko maitasuna ere agertzen da *Sirenatxoan* eta *Bazen bitan Sirenatxoa* albumetan, baina bien arteko desberdintasunak handiak dira. *Sirenatxoan* maitasun erromantikoan oinarritutako erlazioa daukate, begirada batekin maitemintzen diren bi pertsonen istorioa baita, eta *Sirenatxoa*k biak batera egoteko sirena izateari uko egin behar diola erabakitzen du, bere ahotsa denbora luzez galduz. *Bazen bitan sirenatxoan* aldiz, maitaleen arteko maitasuna haien izaerez ohartzearekin batera gertatzen da. Gainera, istorio honetan, mutila da tritoi bihurtzen dena, Monty sirenak bere buruarekiko maitasun handiagoa daukalako, eta hain preziatua den ahotsa ez duelako galdu nahi mutil batengatik. Halaber, mutila da tritoi bihurtzen dena berak nahi duelako, ez Montyk agintzen diolako. Beraz ipuin honetan, norberarekiko maitasuna eta bikotekidearekiko maitasuna ageri da.

#### *4.3.6. Pertsonaia maskulino eta femeninoak zer espaziotan agertzen diren eta zer egiten duten*

Emakumeak izan badirela, eta sirenatxoak, amak, sorginak…bakarrik ez direla CIMAren (2020) adierazpena oinarri harturik, aztertutako ipuin zein albumetan pertsonaia femeninoak zer diren eta zer egiten duten alderatuko dugu. Bestalde, CIMAk (2020) azpimarratzen du emakumezkoen irudiaz gain, gizon erreferente berriak agertzearen garrantzia. Azterketa honekin ezagutu nahi dugu ikastetxeetako gela-liburutegiek umeei zer nolako erreferenteak eskaintzen dizkioten.

Pertsonaia femeninoei dagokienez, *Teo azokan* albumean, izengabeko emakumeak agertzeaz gain, emakume gehienak erosketan, umeekin edo bakarrik, ikusten dira. Zenbait emakume dendari ere ikus ditzakegu, guztiak adin nagusiko emakumeak. *Sirenatxoan*, protagonista den sirena, abenturazalea dela esan arren, ez du jarrera aktiborik erakusten istorioan zehar. Istorio honetako sorginari dagokionez, bere eginkizuna sirenatxoa gizaki bihurtzea da, horretarako ahotsa lapurtuko dion edabea prestatuz, beraz, pertsonaia gaiztoa dela esan dezakegu. *Conoce a Hello Kitty,* protagonista agertoki desberdinetan agertzen da, hala ere, ekintza guztiak estereotipoetan, roletan, oinarritzen dira: janaria prestatzen, loreak zaintzen, lagunekin kuxkuxeatzen, amesten, besteak beste. *Mari Kanela* ipuinean, emakumeen agertokiak irakaskuntzako gela batera eta sukaldera mugatzen dira, berriz ere zaintza ardura emakumeen esku gelditūz. Pertsonaia femeninoen agertokiekin apurtzen duen albuma *Daniela Pirata* da. Daniela pirata itsasontzi batean ageri da, bere indarra erabili behar duen frogak eginez, pirata bat izatea lortzeko. Estereotipoen beste adibide apurtzaile bat, *Mamo* albuma daukagu, ez baita arrunta emakume bat lurrean jolasten ikustea, normalean, ume baten ardura daukan emakume bat sukaldean ageri baita, edo etxeko lanak egiten. *Bazen bitan Sirenatxoa*ri dagokionez, *Sirenatxoa* ipuinaren moldaketa bat denez, protagonistak sirena bat izaten jarraitzen du, baina agertzen den agertokietan ez du jarrera pasibo bat erakusten. Are gehiago, itsasoko sorginak bere diskurtsoarekin ikuspuntu kritikoa eta feminista bat daukala adierazten du, beraz, nahiz eta agertzen diren emakumeak sorgina eta sirena izan, orain arte ezagututako pertsonaiei aldaketa itzela ematen diete liburu honetan. Azkenik, *Edu se viste de princesa* albumean, emakume anitzak agertzen dira: ama eta ahizpa daude, Eduri babesa ematen dieten emakumeak dira, eta haien agertokia etxe familiarrera mugatzen da. Hala ere, ama sofan agertzen da eserita berarekin hitz egiten, beraz, orain arte gizonezkoen agertokia izan denarekin apurtzea bilatzen du. Gainera, estereotipoak apurtzen dituzten neskak badaude, futbol zelaia moduko espazioan agertuz.

Pertsonaia maskulinoei dagokienez, orain arte gizonezkoen agertokia izan dena erreproduzitzen jarraitzen dituzten albumak ere egon dira aztertutako materian, horien artean, *Conoce a Hello Kitty.* Bertan, mutila Hello Kittyren ametsetan ageri da loreak eskainiz. *Edu se viste de princesa* albumean, aita sofan ageri arren, Eduri babesa eta alhokuak emateko dela nabaritzen da: aita jesartzen da Edu jesarrita dagoelako , hori dela eta, ikusten dugu zaintza ardura amak soilik ez daukala. *Daniela Piratan,* gizonezkoak itsasontzian ageri dira, pirata rola baitaukate. *Sirenatxoan* eta *Bazen bitan Sirenatxoan,* protagonista den mutila itsasontzian eta hondarrean ageri da, baina desberdin: *Bazen bitan Sirenatxoan,* mutila agertoki berri batean ageri da, itsaso barrenean, bera baita aldaketa egiten duena gizakitik tritoira. Beraz, istorio honetan, mutila gizakia eta tritoia da. *Teo azokan* albumean, ordea, gizonezkoak lan egiten edo lanera joaten ageri dira, asko azokako dendariak dira, eta ez direnak, beti objektu pisutsu batekin edota maletin batekin irudikatuta daude. Azkenik, *Mari Kanela ipuinean* eta *Mamo* albumean, pertsonaia maskulinoak umeak dira eta jolasten ageri dira.

### *4.3.7. Istorioaren mezua*

Ipuin edo album ilustratu baten helburua mezu bat helaraztea ere izan daiteke. Mezua, hala ere, baloreetan positiboa zein negatiboa izan daiteke, ikusi berri dugunez, umeei Hezkidetzan oinarrituriko baloreak helarazten ez dizkieten istorioak baitaude. Ardura handikoa da eskola batean umeek kontsumitzen dituzten album zein ipuinek mezua izatekotan, garrantzitsuak diren mezuak helaraztea, ikaskuntza bat egoteko asmoarekin. Gauzak honela, aztertutako bi ikastetxeetako ipuin zein albumek zer nolako mezu transmititzen dituzten ikertu dugu. Hurrengoak dira emaitzak.

Alde batetik, mezu oso garrantzitsuak eta ezinbestekoak diren baloreak (feminismoa, elkartasuna, eskuzabaltasuna, familia ereduen aniztasuna, enpatia, maitasuna, ausardia, besteak beste) helarazten dituzten ipuin zein albumak aztertu dira. Horien artean, *Bazen Bitan sirenatxoa* dago. Ipuin honekin argi uzten digute emakume izanik maitasunagatik ez dituzula zure bizitza eta nortasuna albo batera utzi behar. Maitasuna ez dela erromantikoa, baizik eta maitasuna errespetuan, komunikazioan eta askatasunean oinarritzen dela. Aztertutako *Sirenatxo* album ilustratuaren istorioa nabarmen aldatu nahi izan duen ipuina da. Izan ere, *Sirenatxo* albumaren mezua da maitasun erromantikoak oso zoriontsu egingo zaituela, nahiz eta maitasunagatik zure nortasuna galdu. Hau da, zure nortasuna galtzea erromantizatzen duen istorioa dugu.

*Mamo* albumak amaorde gaiztoaren irudiarekin apurtzea bilatzen duen istorioa da, mezu oso argi bat daramana: amaorde guztiak ez dira ipuinetan eta pelikuletan agertzen diren topikoak bezalakoak, dibertigarriak, maitekorrak eta alaiak diren amaordeak badaude.

Emakumearen irudia aldatu nahi duen beste albuma, *Daniela Pirata* da. Honen mezuak argi utzi nahi izan digu emakumeak indartsuak, abenturazaleak eta orain arte gizonezkoenak ziren agertokiak emakumeenak ere badirela. Era berean, umeengan haien ikuspuntu kritikoak piztu ere egin nahi du, emakume izateagatik, zenbat froga pasatu behar diren erakutsiz.

*Edu se viste de princesa* albumak ekintzek, koloreek, jostailuek… generorik ez daukatela erakutsi nahi digu, mundu arrosa eta urdina albo batera utziz, eta norberak bere nortasunari kasu egitea eta ez gizarteak dioen mezua azpimarratzea sustatzen da.

Zoritxarrez, umeek kontsumitzen dituzten ipuin zein album ilustratuetan, berdintasunaren kontrako mezuak ere daude, mezu "negatiboa" helarazten digutenak, adibidez, *Conoce a Hello Kitty* eta *Teo azokan* albumak. Esaterako, azken honetan, gure inguruan dauden gertakariekin asko ikasi dezakegula erakusten digu, baina, pertsonaien irudiek gizarte zaharkitu baten irudia baino ez digu erakusten: emakumeak etxean geratu behar dira gizonak lanera doazen bitartean. *Conoce a Hello Kitty* albumean, ez dago mezu argi bat, entretenitzeko liburua delako, hala ere, istorioan agertzen diren ekintzek emakumearen agertokiak sukaldera, loreak zaintzera, kuxkuxeatzera eta mozorrotzera mugatzen ditu, nesken zeregina horretara mugatuko balitz bezala.

Azkenik, *Mari Kanela* daukagu. Ipuin honekin umeei gezurrak esatea txarto dagoela erakutsi nahi zaie: protagonistari gezur asko esatean, bere gorputzeko atal bat handitzen zaio, eta ondorioz, gezurrak igarri egiten direla adieraziz.

## 5. ONDORIOAK

Ikerketa honek haurren eskuetara eta belarrietara heltzen den Haur Literaturari begira jarri gaitu, eta horrek izan dezakeen eraginari begira ere bai.

Marko teorikoan, Aguilar (2008) eta Pomaresek (2020) esaten zutena argi geratu da azterketa honekin. Gure kulturan hain erroturik egon diren estereotipo diskriminatzaileei aurre egiteko Haur Literatura material oso baliagarria da baloreak helarazteko, beraz agertzen den genero irudia ikusaraztea eta berrikustea beharrezkoa da Hezkidetzan oinarrituriko baloreak helarazteko. Hau lortzeko, irakasleon kontzientziazioa ezinbestekoa da, hau ematen ez bada umeen eskura genero ereduak erreproduzitzen dituzten materiala egoten jarraituko baita (Sasiain eta Mateos, 2006 apud Pomares, 2020).

Ezarritako helburuei dagokionez, haurrei gehien gustatzen zaizkien eta irakasleek gehien irakurtzen dituzten albumak zein ipuinak aztertzea lortu dugu bi ikastetxetako gela-liburutegiak ikertuz. Gainera, elkarrizketatutako lau ikasleen artean, laurak hezkidetzan hezteko garrantziarekin bat etorri arren, haien arteko kontzientziazio maila oso desberdina dela ezagutu dugu. Izan ere, horietako bik "Ipuinen proiektua" sortu dute umeen ikuspuntu kritikoa garatzeko eta haien eskura jartzen dituzten materialak anitzak dira Hezkidetza baloretan. Beste irakasleen artean, eskola-liburutegira joaten jarraitzen dira beraz umeen eskura material ez hezkidetzailea egoten jarraitzen du horiek landu gabe. Azkenengo honek, erakusten digu haien kontzientziazio maila baxua dela, nahiz eta betetako galdetegiaren erantzunetan kontrako iritzia emon. Beraz, Airpurua eta Lasartek (2015) egindako ikerketarekin alderatuz "ondorio orokor gisa, esan daiteke eskola horretan ikerturiko irakasle gehienen kezka dela hezkidetza" (64 or.) esaldia bat dator B ikastetxeko irakasleekin baina ez A ikastetxekoekin.

Lan honetan zehar ikasi dugu, ipuinek eta albumek umeen artean erreferente eta ereduak sortzeko gaitasuna dutela: baliabide onak dira sormena, hizkuntza eta bestelako gaitasunak, kultura eta gizarte baloreak garatzeko haurrengan, baina badakigu genero bereizketarekin lotutakoak ere transmititu ditzaketela. Beraz, haurren eskuetan jartzen diren Haur Literaturaren materialetan (albumetan, ipuinetan,…) sexismoari, genero bereizketari, estereotipoei aurre egiteko zenbait alor kontuan hartu behar ditugu:

1. Gela-liburutegietan daukagun materiala ondo aukeratzeak duen garrantzia. Izan ere, gela-liburutegiak ere diseinatu daitezke haurrek zein balore ikustea eta barneratzea nahi dugun kontuan hartuta.
2. Hausnartu behar dugu genero bereizketak eta eduki eta irudi sexistak detektatzeko eta ekiditeko gure ekarpena nola elkarbanatu familiekin.
3. Genero rolak erreproduzitzen dituzten ipuin zein albumak gela-liburutegietan egon badaudela, baina horiek edukitzea onuragarria izan daitekeela beti ere horiekin lanketarik badago.

Ikaskuntza honetan, oztopo handi bati aurre egin behar izan diogu: COVID egoeragatik, lagina oso mugatua izan da. Ikastetxeetan sartzeko aukera oso murritza izan da, eta lortu bada, haien kontaktua aurretik genuelako izan da. Gainera, A ikastetxean ezin dituzte eskola-liburutegi osoko liburuak hartu. Liburuak koloreka daude (gorria eta berdea):

aste batez gela batek liburu gorriak hartu behar ditu eta beste gelak berdeak burbuilak errespetatu daitezen, materiala elkarbanatu gabe. Beraz, horrek ere eragina izan du materiala aukeratzerakoan.

Amaitzeko, proposamena honen aurrean ikerketa zabaltzea da eta B ikastetxeak ezarritako “Ipuinen proiektua” eskola gehiagotan egitea. Ikerketa honekin ikusi baita, zer nolako eragina izan ahal duen Hezkidetzan hezteko kontzientzia izatea eta hau aurrera eramateko materiala eskaintzea.

## 6. BIBLIOGRAFIA


Aguilar, C. (2008). Lectura, género, feminismo y LIJ. *Lenguaje y textos, 28*, 113-128. Hemen eskuragarri: http://www.sedll.org/sites/default/files/journal/lectura_genero_feminismo_y_lij._aguilar_c.pdf

Aizpurua, I. eta Lasarte, G. (2015). Literatura eta generoa Haur Hezkuntzan: Bizkaiako Haur Eskola baten azterketa. *Tantak, 27*(2), 41-73. Hemen eskuragarri: https://ojs.ehu.eus/index.php/Tantak/article/view/15553/13616

Álvarez-Uria, A.,Vizcarra Morales, M. T., Lasarte Leonet, G. (2019). El significado y la evolución del término «coeducación» con el cambio de siglo: el caso de los centros escolares de Vitoria-Gasteiz. *Tendencias Pedagógicas*, *34*, 2-75. https://doi:10.15366/tp2019.34.006

Bolivar, A. (2006). Familia y escuela: dos mundos llamados a trabajar en común. *Revista de Educación, 339*, 119-146.

